



Xemaa el-Fna plaza, Marrakexen bihotza. Milaka ikusgarri topatuko ditugu. • I. ESKISABEL

Oasi berdeko odol tanta gorria

**'Mila eta bat gau'-etako kontakizunetako giroaren bila
dabilen bidaiariarentzat hiri aproposa da Marrakex;
aproposegia ere bai, akaso**

IDURRE ESKISABEL

Amak besotako umeari bezala, Mendebaldetik beste mundu baten bila doan bidaiariari dena ahora eta xehe-xehe eginda ematen dio Marrakexek. Nahikoa da Xemaa el-Fna plazara joatea denboraren gurpilean atzera egin eta Sxerezadek bere burua salbatze aldera sultanari belarrira xurxulatzen zizkion kontu haietako batean sartu zarela sentitzeko. Ingurura begiratu eta ez da detailerik falta: albo batera begiratu eta kolore bizi-biziz jantzitako ur saltzailea ikusiko duzu; urrats batzuk aurrera egin, eta suarekin malabareak egiten ari den fakirra; han ertzean, ipuin kontalaria zahar bat lurrean jesarrita; haratago, beste gizonezko bat sugeak sorgintzen; ondoan, idazten ez dakitenean maitasun gutunak izkiriatzen dituen eskribaua, eguzki gogorretik babesteko aterkiaren azpian jarrita; haginlaria ere bai, hantxe, jendetzaren erdian ahoa zabaltzen dionari usteldutako hortzak ateratzeko prest —ordezkoak ere izaten ditu erosi nahi dituenarentzat—.

Eta, horrez gain, mila saltoki: botikariaren belar eta animalia hezurak, inguruetako nekazarien fruta eta barazkiak, pitxiak, gozoak, buztinazko ontziak, ehunak, espeziak, haragi brotxetak...



Emakumeak bigarren maila batean daude, eta zaila izaten da haiekin hitz egitea lortzea. • I. ESKISABEL

Hain zuzen ere, Xemaa el-Fna plaza da Marrakex Maroko hiri gorriaren bihotza, medinen erdigunea. Handik sortzen dira zokoko kale estu, korapilatu eta usaintsuak, eta han topatuko ditu bidaiariak munduko saltzaile guztiak. Irribarretsu egingo diote agur, eta nondik datorren galdetuko diote, eta emakumezkoa bada miresmenez betetako esaldiren bat botako —hots, ganbelu asko eman-go lituzketela bere truke, edo Fatima (Mahomaren alaba, musulmanek ohoratzen duten

emakumeetako bat) izenez deitu oso-oso polita dela adierazteko—. Abegitasun itzela agertzen dute guztiek, baina ongi-otorri adeitsuaren ostean, irribarre berberarekin, laster egingo dizute alfonbra bat, edo tapiz bat, edo zilarrezko bitxi bat, edo ontzi batzuk edo hamar mila gauza erosteko gonbita. Erostea eta erregateatzekoa, erritu hori gabe ezinezkoa baita Marrakexen, Maroko guztian bezala, ezer erostea. Mendebaldeko turista bizkor/aberatsa berehala sartzen da saltsa horretan,

saltzaile azpigaratu/pobrearen kontura itzeleko negozioa egiteko asmoz. Gainera, zokoko saltzaileek badute gaitasuna Mendebaldeko bisitari tentel/handiusteari —turista zenbat eta tentelagoa eta handiusteagoa, are eta gaitasun handiagoa— inoiz inork egin duen erosketarik onena egin duela sinetsarazteko. Marrakextarrek esaten duten bezala, astoaren prezioan ganbelua erosi duela pentsarazteko. Ondorioz, guztiak konforme.

Basamortuaren ataria

Hiri gorria da Marrakex. Atlas mendikatearen oinetan, 180.000 palmondoko oasi berde zabal batean dago. Gorria da, eguzki galdatsua gorri islatzen delako areharrizko etxe eta kaleetan eta, azken batean, basamortu gorristaren ataria delako. Neguan 20 gradu zenti-gradu gozokoa izan ohi da tenperatura, baina udan 40 gradu-kolabe bilakatzen da hiri. Eskerrak Atlasko gailur garaienetako elurraren urek freskatzen eta berdetzen duten urte guztian. Nolanahi ere, kondairak beste azalpen bat ematen dio Marrakexen gorritasunari: esaten dute Kutubija minaretea eraiki zutenean orratz batek bezala zulatu zuela zorua eta lurra odola isurtzen hasi zela den-dena gorri-gorri utzi arte. Hain justu, hiriko monumentu nagusia da Kutubija, XII. mendean almohadeek eraiki zuten meskitaren dorre garaia, Sevillako Giralderen bikia. Unescok babestutako ondarea da egun.

Begibistako batean, beraz, *Mila eta bat gau*-etako hiri izateko ez du ezer falta Marrakexek. Baina bigarren begiradan, beste gauza batzuk ikusten hasten da bidaiaria: bera bezalako milaka turistarekin egiten du topo; ohartzen da fakirrak berak bezalako erloju moderno duela eskumuturrean, eta inpotentziaren aurka euliak saltzen dituen botikariaren kamisetak krokodilo ezaguna duela paparran; halaber, konturatzen da beren burua hiriko gidari gisa eskaini dioten gazteek ez dutela Sxerezaderekin amets egiten, baizik eta sorlekuko gaztetxo gehienek bezala pop-rock komertzialeneko izarrekin, futbolari handiekin eta, oro har, Mendebaldeko bizimodu oparoarekin.

Azkenean, bere buruari galdetzen dio bidaiariak lehen zaparrada batean jaso duen Marrakex hori antzeppen handi bat ez ote den. Une horretan, bere kezka eta zalantza bertsuekin (aldeak alde) bizi diren milioi eta erdi lagunak osatzen duten hiria hasten da deskubritzen.

Non, zer

Non lo egin

Turismotik bizi da hein handi batean Marrakex, eta horregatik, azpiegitura zabala du turistei aterbe emateko. Hotel onak, igerilekuekin eta aire girotuarekin hornituak, asko daude eta Europan baino merkeago. Batzuk, hala ere, luxuzkoak dira, eta ondorioz, oso garestiak.

LUXUZKO HOTELAK

- La Mamounia.

MERKEXEAGOAK

- Mansour.

- Atlas.

GAZTEENTZAT

- Ali.

Zer ikusi

Kaleaz eta jendeaz gozatu behar da, sekulako bizitza baitago alde guztietan, eta mendeetako kultura berber eta arabiarren nahasketak eta egungo pentsaeraren arteko loturak kontraste bitxiak sortzen baititu. Dena den, **Kutubija** meskita ezaguna, **Xemaa el-Fna** plaza, **Ben Jusuf** medersa (unibertsitate koranikoa) eta hiria inguratzen duen palmondotegi handia bisitatu beharrekoak dira.

Non jan

Gidariekin erreparo handiak jarriko dizkigute kaleko postuetan eskaintzen dizkiguten haragi brotxetak, piku txunboak eta zukuak hartzeko, baina batzuetan beldurra gehiegizkoa izaten da eta kalean salgai den jatekoa izugarri gozoa. Hotel askotan, berri, Mendebaldeko janaria emateko joera dute. Marokoko sukaldaritza berme osoz dastatzeko jatetxe egokiak dira honakoak: **Dar Marjana, Palais Gharnata, Al Baraka eta El Yacout**.

Era berean, beroari aurre egiteko oso gomendagarria da sarri samar menta tea hartzea. Taberna eta kafetegi ugari tan primeran zerbitzatuko gaituzte.

Aholkuak

Marrakextarrak —gizonezkoak, emakumeek erdi gordeta segitzen baitute— milaka hurbilduko zaizkigu agurtzera eta, bide-nabar, zerbait saltzera, itogarri gertatzeraino. Pazientzia komeni da, eta haiek ulertzeko saioa egitea, hein batean, askoren bizi iturri nagusia turistak baikara. Pisutsuenak, hirian gidari izateko beren burua eskaintzera etorriko zaizkigun gazteak dira. Batzuetan bat hartzea komenigarria da, hartara, gainerako guztiek bakean utzi-ko gaituztelako. Dena dela, hasieratik argi utzi behar zaie zenbat ordainduko diegun.